

Belazteia sortetxea, izena eta izana.

E.: gaur hemen gira Maddi Belazteikoaekin.

M.: eta ba.

E.: egun on, Maddi.

M.: egun on.

E.: ia z... Berdin zuk erraan daukuzu noiz eta nun sortu zinen xuxen, eta nolako ixtoria duzun kartier unekin.

M.: e be, ni hemen, etxe huntan sortia niz mila bedeatzieun eta berroita batian, apiriaren zazpian, eta geroztik hemen bizi niz, bon nunbait eskolan ibili niz, bana ez dut egun aundik pasatu ementik kanpo e,

E.: berdin e... Etxe hunen izenatik hasiko gira. Etxe unek bi izen baditu.

M.: eta ba, eta ba, eta hortan frangotan ukan tut eta enegiak, zeen eta hemen denek eta ez, gu ezagutiak gira eta Belazteiaikilan, eta mais joaiten balin bazira herriko etxerat kadastraat-eta, ez da Belaztegik, an Etxarteko borda da, eta hori gero pizatu ut nola zen, au eta borda bat zen, eta etxea, Etxartia, beerian zen, ta ordian hau borda bat zen deitzen zena Belazteia, eta beeria zen Etxartia, eta zerbait gisaz etxeko partimen edo nik xuxen, ze gertatu zen, bi parte in zen etxaldia, dena bat baitzen eta Etxartia eta Belazteia, ordian Belazteia ene aitak erosi zin, eta Etxartia joan zen eta beste eta propietario batenganat, eta miakuluik ez da biziki ikusten, bana ori kasik mirakulu bat izan zen, eta aantxu eun urtein burian, etxaldia dena bat jarri da gero, erran nai baita, Etxartia eta Belazteia biak Etxarteko Borda dira, bana Belazteia beti jarraitzen zako, izen ori beti jarraitzen zako, ta erten dute eta gune uni erten zela Belazteia, ori ez dut deus erten al ortan.

E.: ziek erosi baituzie ere Etxartia.

M.: guk, senar-emaztek, eta eosi giniin laatan oian Etxartia, ta hola pasatu zen ta gu Belazteia bera beatzi ektara, amar eskas ziren, eta gootixko lotu ginen eta Etxartiain erosteat, bon, urteño zonbait artan eta ibiltzen ginin fermagean e, ua, beeria, eta ordian, eta guk e... Erosi... Erosi ginin, eta jakizazu plazer aundi bat gindila aren erostia, etxaldia eta berriz bateratzea, notariak zaukun erran, ta ori mirakulu bat bezala zela, berriz ez zela usu gertatzen e ola eta etxea partekatuta berriz elgarretaatzia.

E.: gauza ederra.

M.: eta ba, eta ba, ta gure etxaldia ez da etxalde... Etxalde... Oono re oita bat ektara dira e denetaat e, bon oono re oaiko denboretako etxalde ttipia da, bana, bon, iduritzen zaat untsa itzulikatuz, eta lanean ai izanez, bizitzeko... Bon oaiko maneretan ez dakit, oai etxe guzietan bada kanpoko eta, nola errain dut, jornal bat, eta biziki untsa arrenjatzen dina arek situazionea e, bana bon, gu holakoik gabe inguratu gira, gero denborak kanbiatu dira ala re.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna
Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala